

2020. Ordenantza fiskalak. Behin betiko onarpena 2019ko urriaren 18an izandako Bermeoko Udaleko Osoko Bilkuran BAO 2019/12/23. 244. zk.

**BERMEOKO URI-BUSAREN (BERMIBUSA) ZERBITZU PUBLIKOAREN TASA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA**

**1. - artikulua: KONTZEPTUA**

Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dauzan apirilaren 2ko 7/1985 legearen 106. artikulua emondako ahalmenak eta Tokiko Ogasunen abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauaren 21. artikuluan ezarritakoa oinarriak izanik, Bermeoko uri-busaren (**BERMIBUSA**) zerbitzu publikoaren tasa ezarri da.

**2. - artikulua: EGITATE EZARGARRIA**

Tasaren egitate ezargarria bidaiarien uri garraio kolektiboaren zerbitzu publikoa, hau da, Bermibusa zerbitzu publikoa, emotea da.

Zerbitzu publikoaren ibilbidea eta geltokiak honako honeek dira:

<b>Ibilbidea</b>	<b>Geltokiak</b>
Lamera (urteera)	Lamerako autobus geltokia
Txibitxiaga kalea	Txibitxaga kalea 20-22
Askatasun bidea	Erribera enparantza San Andreseko getokia (Askatasun bidea 42)
Erreñezubi kalea	Nardiz tar Gonzalo enparantza
Ondarraburu kalea	
Artieda tar Iñigo kalea	Azokako autobus geltokia
Zubiaur tar Kepa kalea (Hizkuntz eskolaraino)	
Ibarreta kalea	Bizkaiko Jaurerria kalea 41-39
San Martin/Bizkaiko Jaurerria kaleak	
Bizkaiko Jaurerria kalea	Bizkaiko Jaurerria kalea 1 - "Luma" aurrean
Arresi kalea	San Juan Portalea
Tonpoi bidea	
Talako Andra Mari auzoa	Talako geltokia

Barrueta tar Benito	Haur eskolako geltokia
Matxitxako bidea	Hilerriko geltokia
Atalde kalea	Kiroldegiko geltokia
Aritzatxu bidea	Azokako autobus geltokiaren aurrean
Zubiaur tar Kepa kalea	
Lamera (helmuga).	Lamerako autobus geltokia

### 3. - artikulua: SORTZAPENA

Tasa ordaintzeko betebeharra zerbitzua erabilten danean sortuko da.

### 4. - artikulua: SUBJEKTU PASIBOA

Emondako zerbitzuaren erabiltzaileak dira tasaren subjektu pasiboak.

### 5. - artikulua: TASA KUOTAK

1- Tasaren tributuzko kuotak honako tarifa honeen arabera izango dira:

1.1.- Pertsonako, "Bermibusa" txartelarekin bidaia	0,70
1.2.- Pertsonako, jubilatatu, langabetu eta %65 edo gorako minusbalio gradua daukienez txarteldunentzako bidaia	0,50
1.3.- Pertsonako, "Bermibusa" txartelik gabe bidaia	1,00
1.4.- Edozein motatako txartela eskuratzea	2,00

2- Bidaiaren hasiera eta amaiera Lamera (urteera) eta Lamera (helmuga) izanik, tarifa ordaintzeak dakarren eskubidea ibilbide osoa, hau da, Lameratik Lamerara edo tarteko edozein geltokitik beste geltoki batera edo edozein geltokitik Lamera-helmugara da. Beraz behin Lamera helduta Lameratik urtetean bidaia barria dan ezker, tasa ordaindu behar da.

### 6. - artikulua: SALBUESPENA

Tasa ordaintzetik salbuetsita egongo dira 4 urterarteko haurrak

### 7. - artikulua: ORDAINKETA

Tasa ordaintzeko era bi dagoz: udal txartelaren bidez edo diruz autobusean bertan.

Txartelagaz ordaindu ezker, txartela erakutsi beharko da. Ez da onartuko hurbiltasun era erabilia fitxatzea.

### 8. - artikulua: TXARTEL ETA TASA KUDEAKETA

1- **Txarteldunentzako tarifa orokorra:** aurreikusita dagoan 1.1 tarifa aplikatzeari jagokon txartel urdina autobusean bertan eskuratuko da.

2- **Jubilatuentzako, minusbaliodunentzako eta familia ugarientzako tarifak:**

1. **Jubilatuentzako tarifa:** aurreikusita dagoan tarifa azken finean tasa zenbatekoaren hobaria dan ezkerero eta egoera hori frogatu beharra dagoan ezkerero, txartela eukitea hobari eskubidea bermatzeko era da. Horregaitik jubilatuentzako 1.2 tarifa aplikatzeko txartela eukitea derrigorrezkoa izango da.

Eskubidea aitortzeko eskumena udalarena dan ezkerero, froga-agiriekaz [Berh@z](mailto:Berh@z) bulegoan aurkeztuko dau txartel eskaria eta bertan emongo jako txartel gorria hori izanik 1.2 tarifa hobatua aplikatzeko agindua. Txartela autobusean aurkeztuko dau, han aktibatuko da tarifa hobaritua kodifikatuta eta diruz kargatuko da. Txartela eskuratzeari jagokon 1.4 tarifaren zenbatekoa automatikoki deskontatuko da egindako diru-kargatik. Geratzen dana bidaietarako saldo izango da.

Aurkeztu beharreko agiria Gizarte Segurantzak emondako jubilatu txartela da.

2. **%65eko edo gehiagoko minusbalio gradua daukientzako tarifa:** aurreikusita dagoan tarifa azken finean tasa zenbatekoaren hobaria dan ezkerero eta egoera hori frogatu beharra dagoan ezkerero, txartela eukitea hobari eskubidea bermatzeko era da. Horregaitik %65eko edo gehiagoko minusbalio gradua daukientzako 1.2 tarifa aplikatzeko txartela eukitea derrigorrezkoa izango da.

Eskubidea aitortzeko eskumena udalarena dan ezkerero, froga-agiriekaz [Berh@z](mailto:Berh@z) bulegoan aurkeztuko dau txartel eskaria eta bertan emongo jako txartel gorria hori izanik 1.2 tarifa hobatua aplikatzeko agindua. Txartela autobusean aurkeztuko dau, han aktibatuko da tarifa hobaritua kodifikatuta eta diruz kargatuko da. Txartela eskuratzeari jagokon 1.4 tarifaren zenbatekoa automatikoki deskontatuko da egindako diru-kargatik. Geratzen dana bidaietarako saldoa izango da.

Aurkeztu beharreko minusbalio-gradua egiaztetan dauen agiria, Bizkaiko Foru Aldundiaren organo eskudunak emondakoa da, beraz ez dau balio ezintasuna baloratzeko taldeek egindako erispen tekniko-fakultatiboa aurkeztea

3. **Familia ugarientzako tarifa:** aurreikusita dagoan tarifa azken finean tasa zenbatekoaren hobaria dan ezkerero eta egoera hori frogatu beharra dagoan ezkerero, txartela eukitea hobari eskubidea bermatzeko era da. Horregaitik familia ugariei 1.2 tarifa aplikatzeko txartela eukitea derrigorrezkoa izango da.

Eskubidea aitortzeko eskumena udalarena dan ezkerero, froga-agiriekaz [Berh@z](mailto:Berh@z) bulegoan aurkeztuko dau txartel eskaria eta bertan emongo jako txartela hori izanik 1.2 tarifa

hobaturik aplikatzeko agindua. Txartela autobusean aurkeztuko da, hantxe aktibatuko da tarifa hobaritua kodifikatuta eta diruz kargatuko da. Txartela eskuratzeari jagokon 1.4 tarifaren zenbatekoa automatikoki deskontatuko da egindako diru-kargatik. Geratzen dana bidaietarako saldo izango da.

Aurkeztu beharreko agiria Bizkaiko Foru Aldundiaren ziurtagiria beharko da, Familia Ugariaren titulua, hain zuzen ere.

**3- Langabetuentzako tarifa:** aurreikusita dagoan tarifa azken finean tasa zenbatekoaren hobaria dan ezker eta egoera hori frogatu beharra dagoan ezker, txartela eukitea hoberi eskubidea bermatzeko era da. Horregaitik langabetuentzako 1.2 tarifa aplikatzeko txartela eukitea derrigorrezkoa izango da.

Eskubidea aitortzeko eskumena udalarena dan ezker, froga-agiriez [Berh@z](mailto:Berh@z) bulegoan aurkeztuko da eskaria eta bertan emongo jako txartela zenbakia erregistratu ondoren. Txartela eta igorri jakon ziurtagiria autobusean aurkeztuko dauz, hantxe aktibatuko da jagokozan iraupen data eta tarifa hobaritua kodifikatuta eta diruz kargatuko da. Txartela eskuratzeari jagokon 1.4 tarifaren zenbatekoa automatikoki deskontatuko da egindako diru-kargatik. Geratzen dana bidaietarako saldo izango da.

Aurkeztu beharreko agiria Lanbidek emondako langabetua izatearen ziurtagiria da.

Pertsonen egoera aldatu daitezela kontutan izanda, txartelak 6 hilabeteko iraupena eukiko da. Iraupen dataren hurrengo egunean txartela baliogabetuta geratuko da. Iraupen datan langabetu egoeran jarraitzen badau, barriro eskatu beharko da txartela beharrezko agiria aurkeztuta. Iraungitze data baino lehenago luzatzea eskatu ezker, txartelean geratzen dan saldoa itzuliko jako.

Iraupen data baino lehenago langabetua izate egoera amaituko balitz, txartela entregatuta egoera aldaketa aitortu beharko da eta ez aitortzea tributuzko iruzurra izango da.

**4- Txartelak eskuratzea:** Txartel arruntak, hau da, hobaririk aplikatzen ez jakenak, eskuratzeko lekua autobusa da eta txartela aktibatuta erabilgarria izateko momentuan bertan ezinbestekoa da diruz kargatzea. Txartela eskuratzeari jagokon 1.4 tarifaren zenbatekoa automatikoki deskontatuko da egindako diru-kargatik. Geratzen dana bidaietarako saldo izango da.

**5- Diru-kargak:** Txartela eskuratzean nahiz hurrengotan egin daitezkezan diru-kargak 5 €, 10 € edo 20 €-koak izango dira. Diru-kargak autobusean bertan egingo dira.

**6- Txartel aldaketak:** Behin txartel bat eskuratu egoera aldatzeagaitik txartel aldaketa egitean ez da barriro txartela emoteari jagokon tasa ordainduko, beti be, lehenago

txartela entregatzen bada. Zaharrean saldoa geratu ezkerro, itzuli egingo jako, 8.3 atalean ezarritakoaren kalte barik.

**7- Txartela galtzean edo alferrik galtzean** barria eskatu ezkerro, txartela emoteari jagokon tasa ordaindu beharko da.

**8- Txartel itzulketa:** Txarteldunak edozein motibogaitik zerbitzua ez erabiltzea erabakitzen badau, txartela entregatu ahal izango dau udalak berrerabilpena emoteko, baina ez jako itzuliko eskuratzeko ordaindutako tasa, ezta, geratzen jagon saldoari jagokon zenbatekoa be.

Salbuespen bakarra honako hau izango da: langabetu egoera aldatu ondoren zerbitzua ez erabiltzea erabakitzen badau, txarteleko saldo itzulketa eskatu ahal izango da egoera aldaketa kreditatzen dauan ziurtagiria Berh@z bulegoan jaso eta autobusean aurkeztuta eta beti be iraungitze data baino lehenago eskatuta.

**9- Kobru eta itzulketen kontrola:** Txartelak emoteko tasa kobratzea, behin txartel bat eutika egoera aldatzean txartel barria ez kobratzea edo konpentsatzea, eta saldoak itzultzea edo ez itzultzea autobuseko gidariaren esku egongo diran ezkerro eta autobuseko makinaren funtzionamendua kontutan izanda, edozein operazino kontratistak hilerro aurkeztu beharko dauan eragiketa agirian guztiz justifikatuta egon beharko dau.

**10- Txartel eta tasa honen kudeaketari buruzko erreklamazioak:** Erreklamazioak hartzea eta euri buruzko erabakiak hartzea Udalari jagokoz. Horregaitik erreklamazioak aurkezteko lekua Berh@z bulegoa izango da.

## **XEDAPEN GEHIGARRIA**

Edozein motibogaitik Udalak zerbitzua kentzea erabakiko baleu, txarteletan geratzen diran saldoak itzuliko dauz, beti be, txartela udalari entregatuta eta itzulketa eskaria erabakiaren datatik hiru hilabeteko epean egiten bada.